



## **Prestakuntza didaktikoa eta pedagogikoa egiaztatzen ez duten irakasleen kanporatzearen aurrean, STEILASen prentsa oharra**

NAOn maiatzaren 12an argitaratutako ebazpenean 15 eguneko epea eman zaie kontratazio zerrenden dauden interinoei prestakuntza didaktikoa eta pedagogikoa egiaztatzeko. Honen aurrean STEILASek adierazten du:

- Ikasturtean zehar Departamentuari adierazi diogu gure kezka afera honengatik eta eskatu dugu lehenago negoziatzea indar sindikalekin, baina muzin egin digute. Maiatzaren 12an ebazpena argitaratu zen NAOn eta bertan iragartzen zen 3.000 pertsonen kanporatzea, ez bazuten prestakuntza didaktikoa eta pedagogikoa egiaztatzen. Egoera hain larria izanik, lehengo maiatzaren 15ean, astelehenean, instantzia aurkeztu genuen Mahai Sektoriala berehala deitzeko aste honetan, baina oraingoz ez dugu erantzunik jaso.

-Gaur Maria Solana kontseilariak publikoki esan du eskatutako titulazioa aurkezteko epea zabalduko dela eta interinoei "lasai" egoteko eskatu die. Adierazpen hauek oso eskasak direla iruditzen zaizkigu, kontuan izanda oraindik ez gaituztela bilerarako deitu eta ebazpenak jartzen dituen epeak aurrera jarraitzen dutela.

-Lan egiteko alde bakarreko modu honen aurrean eta kontseilariak berak NAOn argitaratutako ebazpenarekiko erakutsi duen desadostasunarekin, honen sinatzailea den Itziar Aragues Giza Baliabideetako buruaren dimisioa edo kargu uztea eskatzen dugu.

-Espero dugu berehala prestakuntza didaktiko eta pedagogikoa modu apropos eta justuago batez arautuko duen ebazpen berri bat negoziatzeko eta adosteko mahai sektorial bat deitzea. Titulazio hau lortzeko ikasketak NUPen eskaintzeko konpromisoa hartu beharko luke Departamentuak. Gainera, eskaintza honek plaza nahikoak izan behar ditu eta irakasleen lan jarduerarekin bateragarri den ordutegia.